


LGTBI+ BANDERAK



1985. Liz Nania.

Bi angeluen sinboloa.

AEBtako Liz Nania artistak sortutako sinboloa da. Aurrerago 1987. urtean Washingtonen kolektiboaren eskubideen aldeko martxetan erabiltzen hasi zen. Nazien Alemanian preso homosexualak sailkatzeko erabili zen alderantzikatutako hiruki larrosaz eta pertsona heterosexualei erreferentzia egiten dien hiruki urdinaz osatua. Azkenik, hirukiaren arteko ebaketa bisexualak egiten die erreferentzia.



1998. Michael Page.

Bandera bisexuala.

AEBtako Binet USA elkarteak aktibistak sortutakoa, bi angeluen sinboloan oinarrituta. Purpura kolorea magentarekin (homosexualitatea) eta urdinarekin (heterosexualitatea) nahasten da, pertsona bisexualak bestelako orientazio sexualen artean hauteman gabe nahasten diren moduan. Bandera inguruan polemika sortu zen, diseinatu zen elkartetik banderaren eskubide intelektualak aldarrikatu zituelako. Urteak igarota ideia alde batera utzi zuen eta gaur egun jakari publikokoa da.



2013. Morgan Carpenter.

Bandera intersexuala.

Morgan Carpenter zientzialari australiarra eta Intersex Human Rights Australiako elkartearen zuzendarikidea 2013. urtean diseinatu zuen. Bandera honek bi kolore ditu: hori-urrea eta purpura. Genero egokitzapenik gabeko koloreak zirelako aukeratu ziren. Zirkulua amaigabekoa eta apaindurarik gabekoa da, pertsona intersexualen osotasuna, integritatea eta potentzialtasuna sinbolizatzen duelarik.



2014. Kye Rowan.

Bandera no binaria.

AEBtako aktibistak ez zuen bere burua guztiz ordezkatua sentitzen genderqueer banderan. Horregatik aurrekoari osagarria dena sortu zuen. Koloreek honakoak ordezkatzen dituzte: horiak genero guztietatik kanpo sentitzen direnei. Zuriak genero askotarikoa edo genero guztietakoa sentitzen direnak. Izpilikuak genero jariatortasuna eta ugaritasunekoak, maskulinoa eta femeninoaren artean sentitzen direnak. Beltzak bere burua generoekin identifikatzen ez dutenak.



2010. Kolektiboa.

Bandera asexuala.

Bandera honen diseinua 2010. urtean AVEN Asexualitatearen hezkuntzarako eta ikusgarritasunerako Sareko web foroetako erabiltzaileek sortua. Bozketen bidez hasierako diseinua eta zentzua eraldatzen joan ziren. Koloreek honakoei egiten die erreferentzia: beltza = pertsona asexualei, grisa = grina-sexual maila desberdinei, zuria = pertsona aliatuei eta morea = komunitateari.



2010. Jasper.

Bandera pansexuala.

2010. urtean Jasper aktibistak sortutako bandera da. Estetikoki polita zen bandera sortzea nahi zuen, baina sorkuntza oso berriztatzailea izan gabe.

Larrosa eta urdin koloreak andrazkoei eta gizonezkoei tradizioz egotzitakoak dira. Horia berriz, genero identitatearen espektro osoa ordezkatzea nahi du, ez-bitartasuna barne hartuz.